

# USKUŔTZ-GAYAK

## GOIZPAŔKI EDO EBANGELIJUA

BAGILA—17'GAŔENEKUA



*Eta bere ardija auŕkiŕuzkero, sorbalda-gañian pozaŕen jaŕiko dau.*

Aldi atan: Josu'ri uŕeratuten yakozan zergalarijak *(kontribuzinoien* diruba aŕtzen ebenak) eta *pekatarijak*, Bera'ri entzuteko. Eta *parixeuak* eta idazkarijak *(eskribauak)* mar-mar egiten eben, esaten: Onek, ba obendijak *(pekatarijak)* aŕtzen dauz ta eurekin jaten oi-dau.

Eta (Josu'k) ipuin au esan eutsen:

¿Zubetariko zeñek, eun ardi daukazala, bat galduko ba'leu, ez-ete-leukez larogetameretzijak basamortuban itxiko, ta galdu zanaren bila, auŕkitu edo idoro-aŕte ezta juango?

Ta auŕkiŕuzkero, sorbalda-gañian pozaŕen jaŕiko dau; ta etxera etoŕita, aizkidiak eta auzokuak deŕuko dauz, esaten dautsela: Egistazube niri poz-aguŕa, neure ardi galduba auŕkitu edo idoro dot-eta.

Nik, ba, dirautzubet: Poz bete ori baxen andija ixango da zeruban *pekatari* edo obendi bat damu ixan dalako, damu biaŕ eztiran larogetameretzi doniak diraia-ta baño.

¿Ta zein emakumek, amaŕ darkama dauzala *(darkama* zan *peseta*-antzedun diruba) bat galduko ba'leu ez-ete-dau argija ixijoko, ta etxia autsinduko (autsa kendu), ta auŕkitu-aŕte ardurez bilatuko?

¿Ta auŕkitu daula aizkidiak eta auzokuak deŕuko dauz, esaten: Esan egistazube neuri poz-aguŕa, galdu neban darkamea (diruba) auŕkitu dot-eta?

Nik ba dirautzubet: Olako poz osua Jaun-goikua'ren *aingeru* edo gotzonak ixango dabe, *pekatari* edo obendi bat damu dalako.

### Zer egiten duban

*Iñese.* —Miren neuk be *Motriko'ko Ulazia'ren txokolatia* aŕtzen det orain.
*Miren.*—¿Eta?
*Iñese.* - Berdin-gabia da edeŕtasunian eta eztet besterik aŕtzen.

## JAUNAŔKUNDE TA OTEUNKIXUNETARAKO ABESTIJA

*Eŕijak:*

Aintza Jaunari—donokijan,
Ludijan eta—itxasuan,
Oteundegijan—gogoz dago
Geure goguen—onerako.
Aintza ta aintza Jaunari
Orain eta beti.

*Abeslarijak:*

I

Josu goguen
Bixitxa,
Egija, bide
Eta aŕia;
Nai neuke bijotz
—Opaŕija
Jabon zaidantzat
Duin, garbija.

II

Etzaŕut begiz
Gauŕ ikusten,
Zarialako
Eskututen
Ogi-añtz-pian,
Neuk saŕijen
Ta bilduŕ-barik
Jatiaŕen.

III

Bakaŕik zagoz,
Gau ta egun,
Txadon askotan
Aztuta, iŕun;
Euki zaidantzat
Alai, poztun,
Eingo nayatzu
Ziñez lagun.

IV

Estu ba-dozu
Donokija,
Labuŕ ortzia
Ta ludija.
¿Zelan daikezu,
Jaun maŕia,
Egin bijotzan
Biztokija?

V

Neure utsaren
Ondaŕetik
Jaunta jaubetzat
Autoŕturik,
Emen naukazu
Poz-pozturik,
Zeu jaurtsteko
Auzpezturik.

VI

Neure almenak
Argiŕuzuz,
Gimenak bere (1)
Osatuzuz,
Girna gaiztuak
Ezi exuz,
Ta ziltzaldijan
Zaindu gaxuz.

(1) Gimen = seitzun.

BASABE'TAŔ BITORIÑE.

# MAIŔA ZAZU...

Egia'taŕ Karmele'ri

Bai-dakizu, Karmele ona,
goizian-goizetik
zein edeŕa jayotzen dan
loria loraletik?...

Bai-dakizu zein polita
altxiŕi-aŕtian
bitxia azaltzen dan
itxaso-eŕtzian?...

Etzaizu iñoiz izan
atsegin eztiya
zuaitzian abesten duan
txoriaren abestiya?

Edeŕa da begiyarentzat
goizian jayo dan loria...
bañan ederago biotzarentzat
gure izkuntza maitia.

Poliŕa da begiyarentzat
itxas-eŕtzeko bitxia...
bañan politago mingañarentzat
Euzkera berdin-gabia.

Soñu eztiya da belaŕiyentzat,
biotzeraño samuŕ dijoa...
ez da ere ain atsegingaŕi
txoritxuaren abesti gozoa.

Maiŕa-zazu, maiŕa-zazu
zure izkuntza, Karmele,
zeuria da, ta egin zazu
zeure biotzaren jabe.

Maiŕe ba-dezu, maiŕasunak
zure biotza suturik,
laisteŕ zera maiŕe ori
zeuretzat iritxi-nairik.

Ta ikusiko dezu, Karmele ona,
ikusiko dezu euzkera,
ta bera mintzatzeko atsegiñez
beti pozik biziko zera.

TENE.